

“MUNDUTIK ZURE ETXERA, ZURE ETXETIK MUNDURA”



ETXEAN EGITEKO JARDUERA

Zinema, sentsibilizazioa eta aldaketak

Asteotan etxean geratu behar dugu, eta hortaz, etxea gure “mundu” bilakatu da. Baina azterketa sakonagoa eginez gero, ikusiko dugu, egiaz, gure etxearen funtzionamenduak eragiten diola munduaren funtzionamenduari. Horrek esan nahi du etxean aldaketa txikiak eginez positiboki eragiten ahal diogula gure inguruari. Animatuko zara?

Jarduera hau bakarrik egin dezakezu, baina gaur egun zurekin batera bizi direnekin egitera animatzen zaitugu.

1. urratsa:

Egin klik ondoko esteka honetan eta gozatu “La Plastiquería” film laburraz:

<https://vimeo.com/243753862>

Film labur hau ECOZINE zinema eta ingurumeneko nazioarteko Jaialdiaren Gazte Ataleko irabazlea izan zen iaz. <http://festivalecozine.es/>

2. urratsa:

Hurrengo galderei buruz hitz egin dezakezu familia eta lagunekin, bideoa ere ikusi badute:

- Zer iruditu zaizu bideoa?
- Errealitatetik oso urrun dagoela iruditzen zaizu?
- Eraginen lizuke nolabait bertan erakusten dena egunen batean egia bihurtzeak?
- Zer emozio sentitu duzu? (hitz bakar batean laburbil dezakezu).
- Zerikusirik al duzu film laburrean agertzen denarekin? Zer zentzutuan?
- Film laburra ikusi ostean... Uste duzu zure eguneroko zer edo zer aldatu beharko zenukeela? Zer aldatuko zenuke? Eta, ez aldatzekotan, zergatik?

3. urratsa: Ni, etxetik...

Gehiegizko plastikoaren arazoak mundu osoari eragiten dio, herrialdea, latitudea, ozeanoa, animalia eta abar dena delakoa dela. Arazo hori zuzenean dago loturik gure kontsumitzeko moduari, hau da, erosten dugunari.

Egunotan, ekintza arruntak –erostea edo zaborra botatzea kasu– garrantzi handiko jardunak bihurtu dira. Zuk zaborra ateratzen ez baduzu ere, animatu nahi zaitugu zure etxeko kontsumoa eta bertan sortzen diren hondakinak aztertzeraz:

1. Zenbatu zenbat hondakin-poltsa botatzen dituzuen hiru egunean, eta zer motatakoak diren. Gogoan izan honela bereizten dugula zaborra: ontziak eta plastikoak, beira, papera eta kartoia, gai organikoa eta errefusa (batzuek, agian, arroparako edukiontzi arrosa izanen duzue).

2. Zer hondakin-mota sortu duzue gehien hiru egunotan zehar? Egizu zerrenda bat, gehien sortutakotik gutxienera.

Horretarako poltsa kopurua eta horien bolumena –hots, zenbat toki hartzen duten– aintzat hartzea gomendatzen dizugu.

Garrantzitsua da baita ere zeure begiez berrikustea banaketa ongi egina dagoen ala ez, ez dagokion lekuan hondakinik dagoen egiaztatzeko.

Agian nabaritu duzu baita ere, alarma-egoera dela eta, etxeko erosketa-ohiturak aldatu egin direla eta ondorioz orain ontziratutako elikagai gehiago erosi direla. Hala bada, aintzat har ezazu.

3. Lehen behaketen ondoren, emaitzak aztertu eta galdetu:

Zer hondakin ekidin litezke urrezko hiru arauak aplikaturik (murriztu, berrerabili, birziklatu)?

- **MURRIZTU:** begiratu erabilera bakarreko zein ontzi ekidin litezkeen haien ordean ontzi berrerabilgarriak edota elikagai ez-ontziratutak erabilia. Erosketa egitetik itzuli eta erositakoa sukaldeko apaletan jartzeko unea momentu egokia da horri erreparatzeko, orduan ateratzen baitugu erositako guztia paketeetatik.

- BERRERABILI: beste zerbaitetarako erabil dezakegun ontzirik al dago? Adibidez, jogurt-ontziak hazitegiak egiteko erabil daitezke.
- BIRZIKLATU: hondakinak berrikusi eta gero, multzo honetan dauden hondakin guztiak zuzen sailkatuta al daude? Familia osoak argi dauka nora bota behar duen hondakin bakoitza? Zalantzarik baduzu hemen egin dezakezu kontsulta:

○ https://reciclapp.navarra.es/ReciclApp_WebInteractiva/

○ <http://www.mcp.es/residuos/donde-lo-tiro>

4. Behaketa- eta azterketa-faseen ostean, aldaketara salto egiteko ordua heldu da. Idatzi etxean hondakin gutxiago sortzeko bururatzen zaizkizun gomendioak. Neurri horiek erosketa egiteko unetik hondakinak botatzeko uneraino aplikatzen ahal dira.

Jarri orria ikusteko moduko toki batean, eta komentatu familiarekin, guztiok horiek aplikatzen has zaitezten.

Seguru aski, alarma-egoerak etxeko erosketa-ohituretan aldaketak eragin ditu. Kasu horretan beste neurri batzuk txertatu ditzakezu egungo egoera aintzat hartuta. *Adibidez, orain, etxean gaudela, errazagoa da erosketak egiteko etxetik poltsak hartzea gogoratzea.*

Izan liteke, baita ere, pentsatu dituzun edo jada etxean egiten zenituzten neurrietako batzuk, alarma-egoera dela medio ezin gauzatzea. Kasu horretan, gomendioen atala osa dezakezu konfinamendua amaitutakoan gauzatzen ahal dituzuen neurriekin.

Adibidez, lehen xaboia soltean erosten genuen, baina orain ezin dugu horrelakorik egin, joan ohi ginen saltokia itxita dagoelako. Alarma-egoera igarotakoan xaboia soltean erosiko dugu berriz ere, hartara ontzia aurreztuta.

Laburpen hau lagungarria izan daiteke zuretzat gomendioen gida egiteko:

- Erosketa egitera joaterakoan hartu beharreko neurriak (non da hobe erostea, zer erosi, nola eskuratu erositakoa...)
- Hondakinak banatu aurretik eta bitartean hartu beharreko neurriak
- Alarma-egoeran kontuan hartu beharreko neurriak
- Konfinamendua amaitzean hartu beharreko neurriak

Utzi astebete edo bi asteko tartea eta egin berriro azterketa: neurtu berriro sortutako hondakin kopurua.

Ba al dago aldaketarik? Lortu duzue hondakin gutxiago sortzea?

5. Nahi baduzu zure esperientzia partekatu dezakezu (aurreko egoerako eta oraingo argazkiak, etxean hartutako neurriak...) lagunekin, gelakideekin, irakasleekin edo gurekin, Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako zerbitzuarekin, alegia, hona idatzita: educacionambiental@pamplona.es.

Mila esker parte hartzeagatik!